

APIRILAK 23

GIPUZKOAKO PLAZA

- **9.30ean.** Irrekiera, txistularien udal bandarekin.
- **10.00etatik 12.00etara.** *Ipuin bat sortzeko tailerra*, Pako Aristi Zuhaizti ikastetxeko ikasleekin (euskaraz).
- **12.00etatik 13.00etara.** Mary Shelleyren *Frankenstein* eleberriaren irakurketa EIZI Eren eskutik.
- **13.00etatik 14.30era.** Irakurketa gune librea.
- **16.00etatik 17.15era.** Irakurketa gune librea.
- **17.30etik 18.30era.** *Maleta kontuak*, Maider Galarzaren eskutik. Sari banaketa, haur irakurle onenak (euskaraz).
- **19.00etan.** Rafa Ruedaren kontzertua.

PROGRAMA OSAGARRIA

APIRILAK 20

'BERTSOLHARITZA'

- **Zer:** Ipuin antzeztua.
- **Non:** Lugaritz.
- **Ordua.** 18.00etan.

APIRILAK 21

'PJO BAROJA Y DONOSTIA SIGLO XIX'

- **Zer:** Literatur ibilbidea.
- **Non:** Okendo plaza.
- **Ordua.** 11.00etan.

APIRILAK 24

'GIZA LIBURUTEGIAK'

- **Non:** Okendo Kultur Etxea.
- **Ordua.** 11.00etan.

'ASMA EZAZU ZURE ABENTURA'

- **Zer:** Haurrentzako marrazketa eta kontaketa tailerra.
- **Non:** Lugaritz Kultur Etxea.
- **Ordua.** 17.30etik 19.00etara.

'INDARKERIA ETA HAUR IPUINA'

- **Zer:** Hitzaldia.
- **Non:** Haur Liburutegia (Fermin Calbeton).
- **Ordua.** 18.00etatik 20.00etara.

'IPIINAK MUSIKAREKIN'

- **Non:** Aiete Kultur Etxea.
- **Ordua.** 18.00etan.

'KOMIKI TAILERRA'

- **Non:** Okendo Kultur Etxea.
- **Ordua.** 18.00etan.

Egunari amaiera emateko Rafa Ruedak kontzertua eskainiko du 19.00etatik aurrera.

AZOKA Gipuzkoako plazan liburu azoka antolatuko da eta bertan 16 liburu dendeke parte hartuko dute. Horien artean bi liburudenda berri ere izango dira, Tabakalera kokatuta dagoen Tobbacko Days eta Errenteriako Noski.

Obra bakoitzean %10eko deskontua egingo dute postu guztietan eta egun guztian zehar 300 liburu zozkatuko dituzte. Gainera, postuetan gastatzen den bost euroko, txartel bat jasoko du erosleak eta saritua bada liburu bat jasoko du. — H. Fernández

Iñaki Irazuk bere "kronika poematuak" bildu ditu estreinakoz


Jabier Muguruzarekin elkarlanean aritutako poetak 'Errukiaren saria' obra kaleratu du

✎ Harri Fernández
📍 Ruben Plaza

DONOSTIA — Iñaki Irazuk lehen aldiz bere poemak kaleratu ditu, *Errukiaren saria eta beste kronika batzuk* deituriko liburuan. Bernardo Atxagaren anaia gazteena denak, Donostian aurkeztu zituen atzo bere "kronika poematuak" Inazio Mugika editoreak lagunduta.

Irazu argitaratzeko garaian berantiarra bada ere, beti aritu da konposizio poetikoan. Villa de Bilbao poesia lehiaketa ere irabazi zuen bere garaian. "Ez nuen materiala heldua zegoenik uste", esan zuen poetak eta gaineratu zuen Mugikarentzako liburua prestatu behar izanak "bultzada" ere eman diola. Horregatik, *Errukiaren saria* poemarioan ez daude bakarrik idatzi zaharrak, berriak ere badira. Liburuarekin "hasebete" sentitzen dela adierazi zuen poetak. Zentzu horretan, esan zuen bere obra, arte guztia bezala, talde lanaren ondorio dela.

Liburua hiru zatitan banatuta dago, eta klasifikazioa Irazu beraren bizi aldiei dagokie: Asteasun, Andoainen, Bilbon edo Deuston emandako denborari dagokio. "Sukaldeak", "geografia emozionala" edota "memoriaren zuloak" bezala definitzen ditu etapa horiek.



Iñaki Irazu, atzo, Donostiako Parte Zaharrean.

Bere poesiarekin ez ditu sentimenduak adierazi nahi izan, beti kotasunaren kronika egin nahi izan du. Modu honetan, istorio narratiboak landuta, gai sozialei eta politikari buruz idatzi du, beste gai askoren artean. "Egunero kotasunaren poeta da Iñaki Irazu",

definitu zuen Inazio Mugika editoreak.

JABIER MUGURUZA Jabier Muguruzaren abesti asko eta askoren letrak Irazurenak dira eta horregatik ere bada ezaguna —*Errukiaren saria* horietako zenbaitzuk aurki daitezke—.

Konkretuki 27 urteko elkarlanean ostean, musikariak 35 letrei doinua jarri die. Irazuk adierazi zuen horien guztien artean gogokoena aukeratzea zaila dela, baina horri buruz galdetuta, bere hitzak dituzten bi abesti aipatu zituen: *Urtain* eta *Eskaintza*. ●



Bere buruaz gabetzen den emakumea

Antxiñe Mendizabal idazleak eta Iraia Oikina ilustratzaileak 'Emakume burugabea' argitaratu dute

DONOSTIA — Antxiñe Mendizabal idazle eta editoreak eta Iraia Oikina ilustratzaileak irudiz eraikitako poema ilustratua argitaratu dute. *Emakume Burugabea* da obraren izenburua eta, Elkarren esanetan, obra "askatasun eta maitasun kantu bat da, eta aldi berean, biziberritze baten metafora". "Ipuin batean bezala kontatzen du bere gorputzetik arrotzuta izan den emakume baten ausardia", azaldu zuten argitaletxetik, gero honakoa gehitzeko: "Emakumeak bere buruaz gabetu beharko du, gorputzean bizitzen hasteko... etxera itzultzeko". Mendizabalek haur eta gaztetxoek zuzendutako ipuinak argitaratu ditu, baina helduentzako bere lehen obra da hau. Oikinak ume eta gazte literaturan ilustratzaile bezala eskarmentua ere badu. —N.G.